



**LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ETA HERRI  
ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO  
HITZARMEN-PROPOSAMENARI BURUZKOA, BIZKAIKO FORU ALDUNDIKO LANGILEEN  
PRESTAKUNTZA-PLANARI BURUZKOA.**

---

111/2019 LT - LGAKZ

## I. AURREKARIAK

Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak (IVAP-ek) nahitaezko legezkotasun-txostena eskatu du goiburuan aipatutako hitzarmen-egitasmoari dagokionez.

Txosten hau Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 5.1.b) artikulua eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 13.1 artikulua Zerbitzu Juridiko Nagusiari esleitzen dizkieten funtzioen arabera egin da.

Hitzarmen egitasmoarekin batera, justifikazio-memoria eta IVAPeko aholkularitza juridikoaren bidali dira.

## II. EGITASMOAREN XEDEA

Aztergai dugun hitzarmen egitasmoaren xedea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Herri Ardularitzaren Euskal Erakundearen arteko lankidetzaren artikulatzea da, Bizkaiko Foru Aldundiko enplegatu publikoen prestakuntzari dagokionez dagozkien eskumenak eta eginkizunak baliatuz.

Lankidetzak, funtsean, IVAPek Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza ematea dakar. Laguntza horren helburua da BFAk aurkezten dizkion prestakuntza-ekintzei alta ematea bere sisteman, eta ikasle bakoitzak ikastaroan izandako bertaratze-ehunekoaren eta aprobetxamendu-proben emaitzen



xehetasuna jaso ondoren, prestakuntza-ekintzetan parte hartzeari buruzko ziurtagiri digitalak ematea.

### III. EGITASMOAREN LEGEZKOTASUN-KONTROLA

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta hurrengoek lankidetzaren hitzarmenen funtsezko alderdiak arautzen dituzte, eta artikulua horietatik eratorritzen den eskakizun nagusia da administrazio sinatzaileek baliatzen dituzten eskumenen esparruan garatu beharreko jarduketara bat izatea.

Alde horretatik, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak lurralde historikoetako foru-organoei eskumen eskusiboa ematen die beren lurraldeen esparruan, besteak beste, beren erakunde propioen antolaketaren, araubidearen eta funtzionamenduaren arloan, eta otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauak, Bizkaiko Lurralde Historikoko foru-erakundearen hautaketari, antolaketari, araubideari eta funtzionamenduari buruzkoak.

3/1987 Foru Arauaren 12.1 artikulua Bizkaiko gobernua eta administrazioa esleitzen dizkio Foru Aldundiari eta, kide anitzeko organo gisa, bere eskumenen esparruan, eginkizun betearazlea, erregelamenduak egiteko ahala eta araugintza-ekimena dagozkie.

Bestalde, IVAPen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren mendeko erakunde autonomoaren, helburuetako bat da, 16/1983 Legea, uztailaren 27koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen Araubide Juridikoari buruzkoaren arabera, lurralde historikoekiko eta Euskadiko Toki Administrazioiko gainerako erakundeekiko lankidetzaren sustatzeko, langileen prestakuntzan eta hobekuntzan.

40/2015 Legearen 49. artikulua aipatzen dituen zehaztapenei dagokienez, ondoriozta dezakegu hitzarmen-proiektuak behar bezala aplikatzeko beharrezkoak diren guztiak jasotzen dituela.

Zehazki, alderdi sinatzaileak, alderdi bakoitzak hartzen dituen konpromisoak (bigarren klausulatik hamaikagarrenera), jarraipen-batzorde bat sortzea eta haren funtzionamendua (hamalagarren eta hamabosgarren klausulak), hitzarmenaren indarraldia (azken xedapenetatik lehenena), hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak (azken xedapenetatik bigarrena), datuen babesaren arloan

aplikatu beharreko araudia (azken xedapenetatik bosgarrena) eta izaera (azken xedapenetatik seigarrena).

Azken batean, hitzarmena bitarteko egokia da Bizkaiko Foru Aldundiaren eta IVAPen arteko harremana ezartzeko Bizkaiko Foru Aldundiko langileentzako prestakuntza-plana gauzatzean.

#### **IV. KONKLUSIOA**

Aldeko txostena eman zaio Bizkaiko Foru Aldundiak eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak sinatu beharreko hitzarmen egitasmoari.

Hauxe da nire txostena, Gasteizen ematen dudana, bi mila eta hemeretziko azaroaren hamaikan, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut.